



AKANPADA

1) Kanpora irtetzea
niri zait atsegin
eta lagunei inoiz
egin gabe muzin.
Frantzira joan nahi dut,
(nahi bai, baina ezin).
Amets horrek sortzen dit
nahiko burukomin.

2) Bidaian nora joan
da gure jarduna,
garraixika hasi da
alboko laguna;
Gasteiz da toki ona,
guztiz ezaguna,
pistinetan zaintzeko
gure osasuna.

3) Konpondu da gutzia
ondo eta garaiz.
Gasteizeraino goaz
gu aurpegi alaiz.
Honako irtenaldia
komeni zaigu maiz.
Neska batekin joan
nahi dut gauza banaiz.

4) Gasteizen hasi gara
neskatxak begira.
Nik bat ezagutzeko
hartu dut desira.
Garraixi bat jaurti dut
hark egin du bira.
Nonbait hemengo loreak
guretzat ez dira.



5) Lehengo larunbatez,
herrira iritsi
eta lenengo gaua,
gasteiztarra ahantzi.
Hemen bertan badira
makina bat bitxi;
gaur bezain polit inoiz
ez diet iritzi.

6) Halako bat etorri
zitzaidan esanez:
«nire besoetara
etorri mesedez».
Joan nitzaion baina
bera nigana ez.
Neska hauek ez ditut
ulertuko errez.

AFIZIO KONTUAK

1) Nire afizioa
da bertsolaritza,
honek indartzen bait du
Euskaldunon hitza.
Nahiz afizio hauxe
ez izan murrirtza,
beteko ote dut nik
behar den baldintza.

2) Bertsolari izateak
ditu zenbait zio,
lehenengo, hartarako
jaio ta balio.
Lopategi maisuak
horrelaxe dio:
Oraindik ez ninteke
nire buruz fio.

3) Gure maixua dugu
Lopategi beltza.
Hori dominatzea
ez dugu erretza.
Bertsoetan onena
bestetan traketsa.
Holako izatea
da nire ametsa.

4) Beste afizioa
da eskupilota.
Askotan pentsatzen dut
hau da joko mota:
pilota eskuz joaz
frontisera bota.
Euskal jokoa da-ta,
nola ez nik joka.

5) Bertsolari izaten
daukat nire helmuga.
Frontoi eta pilotak
etzaizkit ardura.
Baina bertso kontuan
zerbait izan gura
antzeko lagunekin
joanik Kanpantxura.


3) Epaiak eman zigun
bere zoriona,
hura izan baikenuen
gutziz saio ona,
txapelketa bihurtuz
benetako broma.
Geroztik izan nuen
sekulako sona.

4) Igongailuz igotzen
ahalegindu ginen,
zeren egun horretan
ez genbiltzan finen.
Gorantz gindoazela
gauzak zelan diren,
uste ez genuena,
gelditu zen gailen.

TXAPELKETA

1) Puntu batzuk emanda
bertso bat egin nahi.
Nola erosiko dut
juez edo epaimahai.
Klasifikatzen banaiz
normahi bezain alai,
izango ota gara
hainbesterako gai?

2) Bikote zaletua
ni eta Ibarra.
Bertsotan entrenatzen
hura su ta garra,
burua ilun baina
gogoan indarra.
Hura zen buruekin
horma jo beharra.



GAZTAROA

1) Bizi aldi onena
dugu gaztaroa,
aro ederra baina
sarritan eroa.
Denek nahiko lukete
eduki oroa,
baina bizi guztia
geroak daroa.


2) Zahar guztiek dute
beren aitzakia.
Nahasturik omen dago
gazteen abia.
Gaitz guztien errua
dugu alegia.
Eurek ezin dutena
ez da egokia.

3) Gurasoek diote:
hau da lorittoa!
aldegizu hemendik
mukizu tontoa!
buelta emandakoan
ez jarri mokoa,
bestela hartuko duzu
merezitakoa!

4) Esperantzarik gabe
dirua eskatzen,
ta betiko erantzuna
ezetz izango zen.
Aitak esango zigun
gogorki ta ozen:
noizbait dirurik gabe
ikasi bizitzen.

5) Onenak ere ezin
du inor hornitu,
anaia gaz zeurea
inoiz erdibitu,
edo neskatxa batek
bihotza zauritu,
biziak gako haundi
batzuk beti ditu.

6) Jaiak iristen dira
umorez urtero,
guztiok jartzen gara
nahiko buru-bero,
edanak nornahi ere
jartzen bait du ero,
denak lurrean zehar
ibiltzeko gero.





JAIAK

1) Gaztetasunagatik
hamaika interes,
gaztea izan nahi dut
naturalki, berez,
ederra ta liraina
edo ta aldrebes,
neuk aukeratzea ez
galazo mesedez.

IKASKETAK

2) Festarik festa gabiltz
hona eta hara,
garaian garaikoa
ezin dugu laga,
etxera itzultzean
zantzu ta algara,
edo bazter batean
lo gelditzen gara.

3) Uda alde honetan,
urtero bezela,
oso garrantzizkoa
dut jaien papela,
neska bat lortu nahi dut
benetan itzela,
maitasun egarriak
hilgo nau bestela.

4) Nahiz eta sarri egon
Markina jaietan,
eskerrak badudala
dirua eskuetan,
poltxiko biak hustuz
«autotxokeetan»,
baina euskaldun beti
euskera ezpainetan.

5) Liburuekin geure
ikastaroetan,
aspertzen naizenean
klase astunetan,
paper bat hartu eta
hasten naiz bertotan,
hola kontsolatzen naiz
une txar askotan.

6) Aitak eginak dizkit
hamaikatxo promes
aprobatu ezker
brandi eta jerez
aprobatu dut eta
orain esan dit (ez!)
nora joan gintezke
gurasoen fedez?

1) Ikasketetan beti
naiz oso traketsa,
baina horregaitikan
e'naiz inoiz kexa,
kurtsu hau gainditzea
e'neukan erreza,
emaidazu lehen bait lehen
zuk nire promesa.

2) Eskolan baditugu
hamaikatxo alor,
ikasten aritu naiz
gogoz eta jator,
zuk uste dut aitatxo
zerbait duzula zor,
bidai bat eskatzen dut
bihotzik bada hor.

3) Aita eskusarekin
dator niregana
eta halako baten
enteratu ama,
etorri zaitez hona
umetxo laztana,
amak emango dizu
behar duzun dana.

4) Orain pozikan nago
nire amarekin,
bidaia bat eskatuz
ekin eta ekin,
nire amets ederra
egi bihur dadin
ikasi beharko dut
ostera ere fin. ■